

1.9.6. Mapa txikia

Erantzun zerrendaren orrialdean, eskuin aldeko beheko aldean agertzen da batzuetan *mapa txikia* deitua izan dena.

Mapa txikiaren helburua da galderari dagozkion aurkaritza nabarmenenak agerian ematea. Joera handi batzuen markatzeko da, beraz, maiz erantzun batzuk baizik kontuan hartzen ez direlarik. Mapa txiki hori ez da orotan egin, zerbait azpimarragarri gisa horretan azaltzekoa zena ikusi denean baino (ikus 1568. mapa, 37010 galderari dagokiona).

1.10. Zazpigarren liburuko indexak, laburdurak eta ikurrak

1.10.1. Indexak

Mapen ondotik, liburuaren hondar partean, bi index aurkitzen dira: superlemen indexa eta erantzunen indexa.

Superlemen index hau beharrezkoa izan daiteke jakiteko zer sailkapen egin duen moldatzaileak galdera bateko mapa egiteko. Mapagintzari dagokion atala da, beraz, index hau.

Bestalde, irakurleak EHHAn bildu diren berbak eta formak zuzenean kontsultatzeko erantzunen indexa ere sortu da, non mapetan lantzen diren galderetako erantzun guztiak biltzen diren alfabeto ortografikoan. Beraz, forma bat atlasean bildu izan den jakiteko baliatuko da bereziki index hau.

1.10.2. Erantzunetako laburdurak eta ikurrak

- **(mark.):** laburdura hau erantzunen atzean erabiltzen da, erantzuna izena edo ize-nondoa izanik mugagabea ez dela jaso seinalatzeko; erantzuna aditza denean ere baliatua izan da bildutako forma partizipio burutuari ez dagokiola seinalatzeko.
- * eta *italikaz:* izarñoa eta letra etzana baliatu dira erantzun proposatuen seinalatzeko.

1.10.3. Mapetako kolore sinbolikoak

Koloreak arbitrarioki hautatuak dira mapetan, salbu bi kasutan: kolore zuria, eta kolore gris nabarra.

- Kolore zuria: mapan kolore zuriak adierazten du inkesta leku horretan erantzunik ez dela jaso, edo galdera hori ez dela egin.
- Kolore gris nabarra: *bestelakoak* deitu superlemari ematen zaion kolore neutroa da (ik. 1.9.2.).

1.10.4. Superlemetako laburdurak

- XXX (-): Superlema horretan XXX forma agertzen da hutsik, edo beste morfema bat darraiola (atzizkia edo lexema). Adibidez, **itsuken (-)** superlema *itsuke patu, itsuken, itsuken paatu, eta itsuketu lemak* (1581. mapan).
- (-) XXX: Superlema horretan XXX forma agertzen da hutsik, edo beste morfema bat aurrean duela. Adibidez, **(-) arrasta** superlema *orgarrasta* eta *arrasta* lemak agertzen dira besteak beste (1614. mapan).
- (-) XXX (-): Superlema horretan XXX forma agertzen da, aurretik edo atzetik beste morfema bat lotzen zaiola. Adibidez, **(-) taula (-)** superlema *taulattipi* eta *orgatula* lemak (1596. mapan).
- XX(X)XX: Superlema horretan (Y) letrak markatzen duen ezaugarri fonetiko batzuetan agertzen dela eta besteetan ez seinalatzeko. Adibidez, 1564. mapan agertzen den **xal(h)ika** superlema *xalhika* eta *xalika* lemak. Soinu horren agerrera hitz barnean ezin amaieran izan daiteke: adibidez **pasador(a)** superlema mapa berean.
- XXX(X): Superlema horretan XXX formak beste morfema bat ere izan dezakeela adierazten da. Adibidez **gahundatze(ko)** superlema *gahundatze* eta *gahundatzeko* aldaerak bildu dira (1564. mapan).
- XXX -: Superlema horretan XXX formaren ondoren beti agertzen da beste morfema bat. Adibidez, 36470 'manantial / source / source' galderaren erantzun eredu batean: *hur(h)otx, urretx, urposo, urtoki*

eta *ursulo* erantzunak besteak beste **(h)ur-** superleman bildu dira. Morfema aurretik agertuko balitz marratxoa aurrean izango luke.

- XXX: Superlema horretan XXX formaren aurrean beti agertzen da beste morfema edo lexema bat. Adibidez **-leku** superleman *agarraleku, elduleku, elduleku, eskilokiak, eskuleku, eskuleku, eskuloki, goldaeskuleku, guatuleku* eta *oraleku* lemak (ikus 1627. mapa).
- XXX/XXX: Superlema honetan bi aldaerak bildu dira **"/** ikurrarekin bereizirik. Adibidez **guzia(k) / dusti** superlema 1716, mapan.

1.10.5. Inkesta lekuetako laburdurak

Inkesta lekuak laburduez izendatzen dira mapan (ik. XXII-XXV. orr.). Hauetan maizenik herriaren lehen hiru letra hartzen dira kontuan. Lehen hiru letrak berdinak dituzten herrien kasuetan herri izen horietarik batean aldakuntza egin da. Adibidez, Bizkaian Lemoiz herria (lez) da, zeren (lem) laburdura Lemoa herriari baitagokio bestalde. Berdin, Etxalar herria (etr) da, eta ez (etx), zeren laburdura hori Nafarroa Garaian Etxarri herria baita. Berdintsu gertatzen da Etxebarri (etxe) eta Etxebarria (etxa) Bizkaiko herrietan.

Zenbaitetan udalerrri bateko auzune batean egin da inkesta: adibidez, (zol) da Zollo-ren laburdura, nahiz Zollo Arrankudiaga udalerriko auzunea baizik ez den; edo (o.a), Araotz Oñatiko auzunea denean.

1.10.6. Bibliografiako laburdurak

1.10.6.1. Hizkuntza atlasen laburdurak

- ALE: *Atlas Linguarum Europae*.
 ALEA: *Atlas lingüístico y etnográfico de Andalucía*.
 ALEANR: *Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*.
 ALG: *Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne*.
 ALMP: *Atlas lingüístico de los marineros peninsulares*.

1.10.6.2. Bestelako bibliografiako laburdurak

- Azkue:** Azkue, R. M^a de, 1905, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo.
- FAE:** Zahradnik, J. & J. Cihar, 1981, *Guía básica de la Fauna de Europa*, Ed. Omega, Barcelona.
- LAGRI:** Clément, J. M. (zuzend.), 1981, *Larousse Agricole*, Larousse, Paris.
- Lhande:** Lhande, P., 1926, *Dictionnaire Basque-Français*, Beauchesne Ed., Paris.
- Moliner:** Moliner, M., 1970, *Diccionario de uso del español*, Ed. Gredos, Madrid.
- Música:** Música, P., 1965-1973, *Diccionario Castellano-Vasco*, Mensajero, Bilbo.
- OEH:** Michelena, L., 1987-2005, *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia - Desclée De Brouwer - Mensajero, Bilbo.
- P. Larousse:** 1960, *Petit Larousse*, Paris.
- P. Robert:** Robert, P., 1967, *Dictionnaire de la langue française*, Paris.

1.10.6.3. Bestelako laburdurak

<i>etno.</i>	etnologia	<i>lit.</i>	literalki
<i>fonet.</i>	fonetika	<i>mark.</i>	markatua
<i>fr.</i>	frantsesa	<i>onom.</i>	onomastika
<i>gask.</i>	gaskoia	<i>taxon.</i>	taxonomia
<i>gazt.</i>	gaztelania	<i>top.</i>	toponimia
<i>lat.</i>	latina		